

kitto!

...eta

762 zkia. 2011-V-6

ASTEKARIA


ELA

EUSKAL SINDIKATUA

100 urteko ibilbide eraginkorra



Eclipse
Ropa Juvenil
de la 40 a la 60



Zuloagatarren, 7 - behea

Gazte Jantziak

40 talletik 60ra artekoak

Tel. 943 53 02 48

NISSAN GAURSA GUNE BERRIA EIBARREN.



**SALMENTA ETA SALDU OSTEKO
ZERBITZURIK ONENAK JADA
BADU BERE TOKIA.**

NISSAN GAURSA

Otaola etorbidea, 22 - 20600 Eibar
Gipuzkoa - tel. 943 82 09 74

Inoiz ez da azkarregi heziketarik onena jasotzeko.

Èhun urte baino gehiagotan Aldatze Eibarko heziketan erreferentzia izan da. Gure inguruko beharrei erantzutez, garbitasun -pedagogia, hizkuntzak, teknologia berriak, EFQM...- izan dira eta dira oraindik gure lanaren oinarriak.

MATRIKULA ZABALIK Batxilergoko modalitateetan

Lau hizkuntza
Marrasketa, teknika
Biologia
Ekonomia
etabar



HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDI OYO BAT HEZTEN

ELEBI-DUN IKASTETXEA

2 URTEETIK 18RA BITARTETIKO IKASLE NESKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATEKO FROGA %100EK GAINDITU DITUZTELARIK
IKASLEEN BANAKAKO JARRAIPENA

ESKOLAKO ETA LANERAKO ORDUTEGIAK BATERAGARRI EGITEKO ZERBITZU ESKAINTZA

aldatze



ALDATZE

Colegio Santa Maria
de la Providencia

Aldatze kalea, 3 - Eibar - Gipuzkoa
TEL: 943 79 11 50 - aldatze@aldatze.org



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Silbia Hernandez eta Ander Saleg

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO IRUDIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen

aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HARRIKA EGIN.- Harriak jaurti. Gaztelerazko 'apedrear'. "Erromerixatik neskiari bere etxerutz laguntzera juan, eta auzoko mutillak harrika egin zetsen".

HARRIKA JAURTI / BOTA.- Indarrez jaurti. "Bere ondasunak harrika jaurti zittuan eta gero eskian agertu zan".

HARROKI.- Harroputz. "Harrokia dozu, uste barik, gaztetxu hori!".

HARROTI.- Harroputz, harro. "Harroti bat zalako, ez zan heldu iñora".

HARROSKO.- Oso harro, harroputz. "Harrosko galanta zuan ha".

ESKUTITZAK

ZERBAIT LORTZEKO SENDO HASERRETU BEHARRA

Berez Eibarko bizilagunei lagundu eta egunerokoa errazteko dauden munizipalek sutan jarri gintuzten aurreko astean.

Ostegun goizean kotxea hartzera joan eta nik utzitako lekuan ez zegoela konturatzean hasi zen guztia. Ingurura begiratuta "zamalananak" dioen seinalea ikusi genuen, ados, gunea behar bezala adierazita dago baina Eibarren bizi garenok, eta kasu honetan Amañan, badakigu zeintzuk diren gure herrian aparkatzeko arazoak. Kontua da kasu honetan obra lanetarako behar zuten espazioan zeudela autoak eta inolako abisurik gabe bertatik kentzea erabaki zutela. Ho-

rrek guztiak dakartzan isun eta garabi gastuekin. Krisi garaian Eibarko munizipalak ere diru bilketaren alde jarri direla dirudi.

Hori gutxi balitz haserrearen haserrez eta haserre hau gorde ezinik jakin genuen garabiaren prezioa ezberdina dela kotxearen pisuaren arabera. Hemen ere gerra. Azken honetan onartu dute akats bat izan dela eta dirua itzuli digute. Kontu izan, horrelako akatsak behin baino gehiagotan egin dituzte eta kasualitatea izango da baina tasa altua kobratzera jotzen dute.

NEREA IBARRA

GURE BASTERRAKOEI ESKER ONEZ

Aurreko barixakuan eta urteroko ohiturari jarraituz, Bista Eder kaleko Gure Basterra elkarte gastronomikoan afaria egin zuten bertako bazkideek, bikotekidearekin batera. Izan ere, sozietateko bazkideek, gionezkoek zein andrazkoek, urtero musutruk afaltze-

ra gonbidatzen gaituzte bikotekideak, detaile modura. Horregatik, afaltzera gonbidatuta joaten diren guztien partez, gure esker ona adierazi nahi diegu bazkideei lerro hauen bitartez.

GURE BASTERRA-KO BAZKIDEEN BIKOTEKIDEAK

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"50eko hamarkadan egindako euskal literatura aztertuz, harritu egin nau ikusteak Juan San Martin batek zubigile bezala izan zuen garrantzia. Nik maila ez oso altuko idazletzat nuen San Martinek uste baino garrantzi handiagoa izan zuen. Txillardegik batek ere, zer esanik ez. Eta Jakin aldizkariaren bilakaera ere ez zen nolana izan, Mitxelena erreferentetzat hartzeraino"

(Pako Sodupe, idazlea)

"Zertarako jakin nahi dugu bularreko minbizia izango dugula, ekiditeko modurik ez bada? Hau gertatzen ari da dagoeneko eta eztabaida publikoa behar da, oso biobaiorak baikara. Geneen diagnostiko aurreinplantazionala onartu da hemen, enbrioi batetik jaiotakoak bularreko minbizia garatzeko aukerak izango ote dituen jakiteko; baina hori kudeatzeak arazoa dakar"

(Itziar Alkorta, EHUko Biostatika irakaslea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

'PANPO' OROITZEKO MARATOIA

Eguenian, maiatzaren 12xan Felix Ormaetxea "Panpo" oroitzapenezko Aixelako I. Maratoia ospatuko dabe. Antolatzailliak azaldu dabenez, "ez da proba lehiakorra izango eta erritmo kontrolauan egingo da". Maratoia egin nahi dabenak 08.30xetan hasiko dau proba eta 10 buelta emon biharko detsaz presiari. Maratoi erdixa egittia nahi dabenak 10.30xetan hasiko dira (5 buelta) eta, horrez gain, nahi dabenak presiari buelta bi oiñez emoteko aukeria be eukiko dau (urteeria 11.30xetan). Eguardi partia iazko maiatzian antxixiketean zoiala hil zan Ormaetxeari omenaldixa egingo detse. Eta, ostian, Iruki sagardotegixan bazkarixa egingo dabe (izena aurretik emon bihar da, Txoko tabernan edo Ermuko Zurich kafeterixan).

SANJUANETARAKO BILLERIA

Eguaztenian, hillaren 11n San Juan jaixetako programia preparatzeko billeria deittu dabe. Nahi dabenak izango dau billeran parte hartzeko aukeria, 19.00etan Portalera juanda (2. pisuan, harreralekuan izango da).

JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

Gaur arratsaldian, 19.30xetan hasi eta gaberaño Jaixak Herrixak Herrixandako deittuta "jai euskaldun, parekide eta parte-hartzallien aldeko" ekimena egingo da Monteka pareko parkian.

SKATE ESKOLA ATZERATUTA

Euskera-Kultura batzordiak aditzera emon dabenez, maiatzaren 7xan egitteku zan BBK Skate Eskola Tour 2011 erakustaldixa atzeratu bihar izan dabe eta, beraz, hillaren 21an izango da.

Saharara janaria bidaltzeko kanpaina hilaren amaierara arte

SAHARAKO HERRIAREKIN ELKARTASUNEZKO EUSKAL KARABANAK ARGELIARIKO TINDUF-EKO KANPALEKUE TAN DAGOEN JENDEAREN TZAT janariekin laguntzeko proiektua aurkeztu du. Urtero egiten den ekimen hau hilabete honetan eramango da aurrera, horretarako supermerkatu handietan kokatu diren karroetan (Eibarren eta Elgoibarren) eta baita ikaste-txeetan jasoko dutenekin. Herri saharauiaren aldeko elkarte eta lagunak sustatutako proiektu honetan, "arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea eta sardinak oliotan, azukrea, olioia, konpresak eta helduentzako pardelak" jasoko dira.

Azken urtean asko jaitsi da Saharak jasotzen duen laguntza. Gure herrian sortu den EibarSahara elkarte berriak bere estatutuak prestatzen dihardu eta, bertako ordezkariak diotenez, "diru-laguntza urria da, ho-



Saharan orain arte zuten stock-a ere amaitu dela diote "EibarSahara" elkartekoek.

rrek duen garrantziarekin, hortik bizi dira-eta". Arazo larrienak "bost urtetik beherakoenen desnutrizioa eta haurdun daudenen anemia" dira; aurrekoari gehitu behar zaio "hemen udan jasotzen dituzten harrerako familien kopurua jaitsi dela eta horrela neska-mutil gutxiago etorriko da aurtan". Guzti horregatik, "eibartarron eta elgoibartarron laguntza eskatzen dugu, hemen jaso-



tako guztia Euskal Fondora jostango zuzenean", diote EibarSahara elkartekoek.

"Eibar kontuan hartu", sozialisten programia

MARTITZENIAN PRESENTAU EBAN MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATIAK 2011-2015ERAKO HAUTESKUNDE PROGRAMIA, alderdi sozialistaren Untzagako egoitzan. 120 ekimenetik gora jasotzen dituen programia "azaletik" komentau eban alkatiak, "kanpaiñaren barruan proiektu bako-txaren gaiñeko esplikaiziño

gehixago emoteko tartia izango dogu-eta". Lehentasun nagusiñen artian "ekonomixia indartzia" dakela azalduta, hori lortzeko bidian, bestiak beste, polo teknologikuaren proiektuan Teknikerrekin alkarlanian jarduteko gertu agertu zan De los Toyos eta, ildo berian, Matsarixara enpresak eruateko diru-laguntzak indartzia, Errebalen



Programaren aurkezpena PSE-EEren egoitzan egin zan. / SILBIA HERNANDEZ

merkataritza gunere irekixa bultzatzea eta ahal daben neurrian enplegua sortzen laguntzia aurreikusten dabe. Zientzia eta barritasunari eskindutako arluan, bestiak beste Wi-Fixa herrixan zabaltzen segiduko dabela aurreratu dabe. Etxebizitza arluan, protekziñoeko promozioñuekin aurrera egitteko asmua dake eta, horrekin batera, aparkatzeko tokixak sortzeko, herri barruan espazio publiko barrixak preparatzeko eta akzesibildadia hobetzeko planeri eutsiko detse. Gazterixa, kultura, gizartekintza eta beste-lakuendako ekimen konkretuak dittuela argitziarekin batera, eta programan jaso dituen ekimen guztien artian inportantienak azpimarratzekotan, Ipurua-ko kiroldexixa haunditzeko proiektuari aparteko tartia eskindu nahi izan zetsen aurkezpenian.



Azken erabagixaren zain, Bilduk programiari segidu detsa

ESKU ARTIAN DAKAZUEN ALDIZKARIXA INPRENTARA BILDALTEKO ORDUAN OINDIOK MADRILLEN AUZITEGI KONS-TITUZIONALAK Bilduren zerrenden gaiñeko zer erabagiko daben zain genguazen, baiña, bixen bittartian, Bildu Eibarrek aurreikusitta-ko ekitaldixeri eutsi detse. Holan, zapatu eguardixan, Bihargiñen Naziñoarteko Egunaren bezperan, udaletxe parian konzentraziñua egin zan, *"Maiatzaren Lehenian gogoratzen da bihargiñen egunare-kin alkartasuna adierazteko"*. Zapatuan bertan, gaberdirako ordu er-di eskas falta zanian euki genduan auzitegi gorenak Bilduren ze-rrenda guztiak hauteskundietatik kanpora lagatzeko erabagixaren barri eta, horri erantzuteko beste elkarretaratze bat egin zen marti-tzen illuntzixan. Alternatiba, Aralar, EA, EAJ-PNV, Ezker Abertzalea, Ezker Batua eta Hamaikabat alderdixak deitutako konzentraziñuan zabaldutako pankartan beste herri askotan irakorri zan esaldi bera erakutsi eben gurian be: "Eskubide guztien alde ilegalizaziorik ez!". Eta eguaztenian Portalean herritarren aurreko presentaziñua egiñ eben, egun batzuk lehenago aurreratu ebenari jarraituta.



Armerixa Eskola Urkotronik-eko azukretxuetan

EIBARKO MUSEUAN EGUAZTENIAN EZAGUTZERA EMON EBENARI JARRAITUZ, Armerixa Eskolaren sorreraren mendeu-rrenaren harira, ospakizunari eskindutako azukre-zorro berezixak banatuko dittue Eibarko zeñ eskualdeko tabernetan, Urkotronik enpresa banatzailliak eta Eibarko Museuak alkarrekin garatutako ekimenari esker. Aurretik egindakuaren bidetik, Urkotronik-ek gure herrixaren historixarekin lotutako hainbat kontu kafiarekin batera emoten diran azukre-poltsatxuetan idatzitta banatuko dittu beze-ruen artian eta, sobriaren beste aurpegixan, Armerixa Eskolaren mendeurrenaren irudixa inprimiduta daroiate poltsatxuek.

auzorik auzo



Aiolako adin-txikikuak Ospitalera biharrera

Udalak eta Diputaziñuak oin dala egun batzuk siñatutako hi-tzarmenari jarraituta, Aiolako harrera etxian daguazun adin txikikuak "gizarteratzen laguntzeko biharrak" egingo dittue Legarren dagan San Andres nagusixen egoitzan (Ospitalian). Idatzixan zihezuta daguazun baldintzetan diñue-nez, *"gaziak lokalak garbitzen, lorategixak atondu eta zaintzen eta labanderixako betebeharrekuetan laguntzen"* jardungo dabe batez be. Horretxek egitten jardungo daben gaziak astian birrit-tan juango dira Legarreko egoitzara, arratsalde, eta egun ba-kotxian ordu eta erdiz jardungo dabe biharran, beti be Aiolako zentruko hezitzaile batek lagunduta. Aiolako adin txikuendako zentrua 2009. urtiaren amaieraz ge-roztik dago zabalik eta hasierako hillebetiotan erregular, arazo barik jardun eben euredako programa eta bestelakuekin, baiña 2010eko martxuan hainbat liskar sortu eta zentrua berrantola-tzeko biharran hasi ziran agintarixak.


eibar kaleka

Untzaga Plaza

Sasoi batzuetan beste izen batzuk izan badittu be, antziñatik esan jako Untzaga udaletxe pareko plaziari. J. San Martinek "Antzinako Eibar" lanian diñuanez, 1664ko dokumentuetan San Juan Bautista eguneko prozesiñua San Adres parrokiatik "Ulsaga" (Untzaga) plazan eguan San Juan ermittaraiño egitten zan.

Pegora kopurua: 10

Erroldatutakoak: 143



asteko
540.000
datua

euro gastauko dittugu aurten eskillara mekanikuen mantenimientuan: gehixena, 466.000 euro, mantenimiento arruntian juango da; hortik aparte, elektrizidadia pagatzeko 53.000 euro erabiliko dira eta garbiketa kontuetarako 21.000 euro gehixago.

Legealdixak “zapore gazi-gozua” laga detsa Hamaikabateri

EGUAZTENIAN BALORAU EBAN AZKEN LAU URTIOTAKO UDAL GOBERNUAREN JARDUNA Hamaikabat alderdixak, prentsaurrekuan. Jose Antonio Mutiloa Eibarko Hamaikabateko lehendakarixak, Mertxe Garate alkategaixak eta Jesus Rementeria zinegotzixak egindako agerraldixan esandakueri jarraituta, “udalian egindako biharrak izan daberen emaitzak zapore gazi-gozua” laga detse. Garateren berbetan, “udal gobernuarekin alkarlanian jardun dogu, baiña gure jarduna ezerezian geratu da benetan pisuzkuak eta estrategikuak diran gaixetan”.

Enplegua sustatzeko proiektuetarako 600.000 euroko aurrekontua euki daberen arren, “heren bat baiño ez erabili izana” gogor kritikau eben eta udalak horrelakuetan “parte-hartze haundixagua izan biharko leu-



Garate, Mutiloa eta Rementeria prentsaurrekoan. / SILBIA HERNANDEZ

kiala” pentsatzen dabe. Gobernu taldiaren parte izan diran aldetik, beste alderdixek egindakua kritikatzirekin batera euren jarduna be kritikatu eben, “izan be, inbersiñuak zertara bideratu bihar ziran erabagitzeko orduan erabagi horretan gure eragiña gauzatzen ez dogulako jakin”. Aurrerago modu zihatzean azalduko dittuen hainbateri errepasua emon zetsen aurkezpenian, batez be legeal-

di honetan euren ardurapian egon diran merkataritza, industria eta ingurumen sailleri lotutakueri erreparauta. Bestalde, alderdi sozialistari aparkaleku eta protekziñoeko etxien promozifitua euren inguruan aurreikusitakuetatik “gitxi batzuk baiño ez betetzia” aurpegiratu zetsen, “hori bai, eskillara mekanikueri dagokixonez aurreikusitakuak baiño gehixago” ipiñi dittuela gaiñeratuta.

Nagusixen Hamabostaldixa martxa betian

ASTELEHENIAN ABIATU ZAN PERTSONA NAGUSIXEN XVIII. HAMABOSTALDIXA, Miguel de los Toyos alkatiak, Benjamín Atutxa

Gizarte Ekintzako Programaren Presidentiak, José Riviere Gipuzkoako Jubilau eta Pensionisten Alkarteko Presidentiak eta Carmen Arzuaga Biztu Jubilau eta Pensionisten Koordinadorako Presidentiak egindako aurkezpenarekin. Aurten “Bizitza esperientzia” leuari jarraituko detsan egitarauak astelehenian bertan izan eban jarraipena, arratsaldian Untzagatik Azittaingo industrialderaiño egindako Juan Luis Mugerzaren Oroimenezko Pertsona Nagusixen Ibillaldixarekin. Biztuk eta Udaleko Gizartekintzak antolatutako hamabostaldiko programiak datozen egunetarako hainbat jarduera jasotzen dittu. Astelehenian bertan 18.00etan zinia emongo dabe Coliseuan eta nagusixek sarrerria musutruk eukiko dabe. Hillaren 10erako mendi ibillaldixa antolatu dabe (Mendarora). Hillaren 11n zarzuela emanaldixa hartuko dau Untzagako jubilau etxiak eta hurrengo egunian, hillaren 12xan, Legarreko frontoian herri-bazkarixa egingo dabe, lehiaketarako preparauko dittuen paellekin. Ondoren dantzaldixa eukiko dabe eta aurreko egunotan jokaturako txapelketako irabazlieri be orduan emongo detsez sarixak. Programia agurtzeko beste dantzaldi bat preparau dabe hillaren 14rako. Egogain gerontologia zentruan izango da ekitaldixa, 17.00etatik aurrera.



Olano EAJ-ko hautagaixekin

EGUAZTEN ARRATSALDIAN UNTZAGAN EKITALDIXA EGIÑ EBAN EAJ-KO HAINBAT ORDEZKARIK, tartian Markel Olano ahaldun nagusixak eta Eva Juez alkategaixak. Azken honen berbetan, “Eibarrek etorkizun hobia merezi dau. Sozialistak agintzen emon dittuen azken 25 urtiotan ekonomixa eta gizarte arloko adierazliak agerixan laga dabe gurian izandako gainbeheria. Aplikau daberen toki guztietan porrot egin daberen gestiño ereduaren ondorixua da hori”. Horrerri bueltia emon nahixan, EAJ-kuak herriko ekonomixaren norabidia kanbixatzeko Eibar Garatuz izenekoko Plan Estrategikua dakela gogora ekarri eben ekitaldixan. Bestalde, Markel Olanok bere jardunian gure herrixarekiko dakan konpromiso sendua azpimarratu eben, “bere eskutik benetan inportantiak diran inbersiñuak egittia posible izan dalako. Batzuk aittatziarren, AP-1a, Eibarko bariantia (40 millioi euro), Ur Patzuerguarekin batera Eibarrerako ubide barrixetan 9 millioi euro inbertitzia, Tekniker, museo, antzerki eta krisixari aurre egittiko planari emondako laguntasunak eta beste batzuk be goguan hartzeko modukuak dirala pentsatzen dogu”.


Behin maiatzian sartuta, eguraldi onarekin batera jaixak ugaltzen juaten dira, eta hillaren 15ian jaiegun gitxi izaten daben basarritarren eguna izango da. Sanisidruak ospatuko dira aurten be egun horretan Arraten eta basarriko jendiak santuari lagako dabe biharrian, eurak jaira animatzen diran bittartian. Ondo bizi dira?

Basarritarren bizitzaren enbidixarik bai?



MILA URRUTIA
63 urte
jubilaua

Basarrixan bizitzia gustauko litxakit, baiña bertako lana egin barik. Oso lan gogorra da, batez be ganaua badakazu. Hor ez dago ez astebururik ez oporrik eta uda sa-soian be lan mordua egoten da.



JOSEBA MARTÍN
19 urte
ikaslia

Neri ez litxakit asko gustauko basarrixan bizi izatia, edozer gauzatarako herrira jaitsi biharko nintzake-eta: lagunekin egoteko, erosketak egitteko... Gaiñera, basarriko lana oso gogorra da. Gu ez gagoz ohittuta holan bizi izaten.

M^a ANGELES GARCÍA
61 urte
etxeoandria

Ez litxakit gustauko basarrixan bizi izatia. Nahiko beldurtixa naiz, katuak be bildurra emoten deste eta hain bakarrikan bizitzia ez jata gustatzen. Basarriko biharrik ez nau atzera botatzen: ortua dala, ganaua... Lan gogorra da, baiña egingo neuke.



JOSE MANUEL CORRALES
62 urte
jubilaua

Bai, gustora juango nintzate basarriara bizi izatera. Hangua bai askatasuna! Gaiñera, ortuko lana asko gustatzen jata. Nik badakat ortutxo txiki bat oin be eta gustora jardungo neuke han. Ganaua be eukitziaren aldekoa naiz. Bizimodu polita da!



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

ARETO
MAGUSIAN
Ezkerri aurrekik
izena eman!

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MAIATZAK 7
larunbata, 10:30

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

ESKORATZA MAIATZAK 14
larunbata, 11:00

Ayerbe liburudendak egin ditu egin beharrekoak gure herrian eta mende erditik gora eskainitako zerbitzuarekin amaituko du hilaren 10ean. Egun horretan itxiko ditu ateak Estaziño kalean sortutako liburudendak. Iñaki Zubillagak orain dela hamahiru urte hartu zuen Maritxuk eta Pakitak -"pena sentitzen dut eurengatik" dio berak- zabalduetako bidearen lekukoa eta 2003tik hona Zezenbiden izan du bezeroekin harremana. Beharrea gustora jardun duen arren, egoerak behartu du Zubillaga denda ixtera, "dirua galtzea inoiz ere ez delako errenta izan". Bizitzaren legea nagusitu dela dio berak.

IÑAKI ZUBILLAGA (Ayerbe liburudenda):

"Gehiago izan dira liburua oparitzeko erosi dutenak eurak irakurtzeko baino"

- Beharrea aurkitu zaitugu. Nekosoa egingo zaizu azken urteotako lana lagatzea...

Garbiketak egiten harrapatu nauzue. Liburuak-eta bueltatzen nabil denda itxi aurretik. Jendeak, dena dela, aukera polita du azken egunotan liburuak erdi prezioan erosteko eta ume-endakoak eta halakoak euro baten truke lortu ditzakete. Poltsikoak ere hiru eurotan daude likidazio honetan.

- Kriaren eraginak bultzatu zaitu horrelako erabakia hartzea? Ohitura aldaketak?

Egoerak bultzatu nau: materialismoa nagusitu da. Diru-kontua izan da, azken finean. Joera bat badago, Gabon kanpainatik hona eta azken hiru hilabeteotan gehiago nabarmendu dena, eta komertzialek ere esan didate azken aldian beste hiru dendak itxi direla.

- Pena izango duzu betetzen zaituen horrelako lana derri-gortuta lagatzean, ezta?

Derrigortuta... azken finean nik hartu dut erabakia. Proiektu bat baztertu egin behar izan dut: ez dudalako asmatu edo batek daki. Esan izan didate superfizie handiek-eta halakoek kalte egiten digutela, baina ni ez naiz hasiko erruak inori botatzen. Bakoitzak aurre egin behar dio bere ahalmen eta hutsunei. Bata dela, bestea dela, bezero kopurua jaitsi egin da. Gainera, ez naiz inorekin haserretuko, ezta? Bakea eta maitasuna behar dugu! Penari dago-kionez, bai eta ez. Badakit hemen ez naizela jubilatuko. Kanpotik ikusita lan polita eman dezakeen arren, hemen ere denetarik dago.

- Aurrerakuntza teknikoek-eta liburua baztertu dutela uste



duzu? Gaur egun ez da hain-beste irakurtzen?

Irakurri... gero eta gehiago, esaten dutenez, ezta? Pantailan behintzat. Idazteko ere ohiturak aldatu dira eta sms-ak eta horrelakoak daude modan gaur egun.

- Eta Eibarren ez gara pixkat umezurtz geratuko Ayerbe itxita? Tamaina horretako liburudendarik ez dugu herrian...

Ez dut uste: jendeak aurkituko ditu beste liburudenda batzuk, ez da horregatik libururik irakurri gabe geratuko.

- Libururen beharrik badu jendeak ala, batzuk diotenez moduan, azkenean desagertu egingo da?

Liburu tiradak gutxitu daitezke, baina liburuak jarraituko du. Horrelako aukerarik ez dut uste kenduko digutenik.

- Zuri zerk deitzen dizu atentzioa liburu bat hartzean?


Batez ere, usainak... liburu berrien usainak. Baita taktuaren inpresioa, liburuaren testurak eragindakoa. Xabier Montoiak zioen obra berez baloratu behar dela, bere itxurari erreparatu gabe, baina gaur egun azalak-eta asko zaintzen dira. Marketing-ak du azken hitza.

- Zure bezeroek ideia finkoarekin etorri dira? Edo zure aholkua jarraitzen zuten?

Joera zeozer jakinaren bila etortzea izan da eta bihozkada nagusitu zaio meditazioari, orokorrean. Horrez gain, benetan irakurzaleak direnak baino erosleak jaso ditugu hemen: liburu oparitzeko asmoz etorritakoak.

- Liburu bat eskatzen badizut, irakurri dituzunen artean... Eta oparitzeko?

"La sombra del viento", Carlos Ruiz Zafón-ena. Oparitzeko ere bera, zergatik ez?



Florencio Urretxu Muga 'Txikuri' II. URTEURRENA (2009-V-4)

**BERE ALDEKO URTEURREN MEZA
OSPATUKO DA DOMEKAN (APIRILAK 8),
EGUERDIKO 12etan, SAN PIO X. ELIZAN.**

Aldez aurretik, eskerrik asko etorriko zareten guztioi.





DANOBAT

MAKINA-ERREMINTA SEKTOREAN
AITZINDARIA, MONDRAGON TALDEKO
PARTAIDE ETA ELGOIBARREN KOKATUTAKO
ENPRESAK ONDORENGOAK BEHAR DITU:

MUNTATZAILE MEKANIKOAK (Erref.0.500)

Eskatuko da:

- Lanbide Heziketa II Mekanizatu bidezko produkzioa edo Industria Ekipoen mantenimendu edo muntaketa goi mailako zikloa
- Hizkuntzak: ingelese eta euskaraz ondo jakitea
- Bidaiatzeko prest egotea

Baloratuko da:

- Muntaketa mekanikoetan esperientzia
- Ohiko makina erremintak manejatzen esperientzia
- CNC bidezko makinak manejatzen eta programatzen esperientzia

HORNIKUNTZA TEKNIKARIA (Erref.0.502)

Eskatuko da:

- Goi mailako formazio zikloa, Goi mailako Ingeniaritza edo Teknikoa.
- Hizkuntzak: ingelesez eta euskaraz ondo jakitea
- Beste hizkuntza batzuek jakitea baloratuko da
- Bidaiatzeko prest egotea
- Komunikatzeko eta negoziaketetarako gaitasuna
- Taldean lan egitea
- Proaktibo izatea

EROSKETA ARLOKO TEKNIKARIA (Erref.0.501)

Eskatuko da:

- Ingeniaritzako ikasketak goi mailakoak edo ertainak
- Hizkuntzak: ingelesez eta euskaraz ondo jakitea
- Beste hizkuntza batzuek jakitea baloratuko da
- Bidaiatzeko prest egotea
- Komunikatu eta negoziatzeko gaitasuna izatea
- Talde lanean jardutea
- Proaktibo izatea

PROIEKTUGILE MEKANIKOA (Erref.0.503)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoa
- Diseinatzaile mekanikoa 3Dtan
- Esperientzia makinak diseinatzen
- Hizkuntzak: ingeles eta euskaraz jakitea ahoz eta idatziz
- Mekanizatu eta muntaketa lanetako ezagupenak eta esperientzia ere baloratuko dira

ESKAITZEN DA: Antolakuntza industrial sendoaren parte izateko eta promoziorako aukera.



Interesatuak bidali curriculuma dagokion erreferentzia adieraziz hurrengo posta helbidera
(Giza Baliabideetako departamendua. 28 P.K.- 20870 ELGOIBAR)
edo helbide elektronikoa honetara: gb@danobat.com



Euskal Herrixan afiliatu gehixen dakan ELA sindikatu abertzaliak sortu zala 100 urte betetzen dittu aurten eta, hori aprobetxatuz, hainbat ekimen antolau dittu efemeridia gogoratu eta egindako bidari errepasua emoteko. Danetariko gauzak izan dittu ibilbide horrek, "gerra osteko une latzak tartian, ondasunak be kendu zeskuezen-eta". Oin harro dagoz denbora horretan lortutakuekin eta animoso etorkizunari begira. Gure herrixa be historixa horretako protagonista izan da hainbat bider eta, hillaren 9xan eta 10ian Bidebarrieta kaleko egoitzan ikusgai izango dan erakusketia aprobetxatuz, bertako ordezkari birekin izan gara. Jarraixan dozue Jose Angel Ulaziarekin eta Amaia Lasagabasterrekin izandako tartetxuan sindikatuari buruz egindako analisisa, ehun urtiotako hainbat urrats gogoratuz.

Bilbon egin zittuan lehelengo urratsak ELA sindikatuak oin dala ehun urte, Correo kalian, 178 bihargin bildu eta Solidaridad de Obreros Vascos-eko araudixa onartu ebenian. Sindikatuak azkar batian hartu eban indarra Gipuzkoan eta Bizkaian, baiña hamarkada bi bihar izan zittuan Araban eta Nafarruan estabildadia lortu arte. Eibarren sindikatuaren ordezkari moduan urte mordua daroian Jose Angel Ulazia mutrikuarra Manu Robles Fundaziñoko idazkarixa da gaur egun eta, berak diñoskunez, "sindikatuaren sorreran, rebindikaziño bidia hartu biharrian, afiliatuaren babesa billatu eban ELAk: mutualidadiak sortu,



Eibarko Unión Local-ak 1977xan Moncloaren paktuen aurka egindako manifestaziñua. / JUAN CRUZ LOPEZ.

Mende osua bihargiñen aldeko borrokan

konsumo kooperatibak eta halakuak... Tostarteko arrantzaliñentzat be barku bi erosi zittuan eta baita lurak Nafarroako Erriberan". Premiñazko artikulua merkia-go erosteko hainbat inizatiba hartu zittuan sindikatuak bihargiñen alde.

Langabetuendako komedoriak, subsidio berezixak, atenziño medikua, eskolarizaziñua... guzti hori baztertu barik be, pausu baxirik emoten hasi zan ELA eta baita marko geografikua zabaltzen, ofizietako agrupaziñuen inguruan. **1929xan lehelengo Kongresua egiñ eban, Eibarren** hain zuzen: "Urriaren 12xan eta 13an izan zan, Asteleñan. Orduan frontoia baiño gehixago antzoki antzerakua zan", diño Ulaziak. Kongresu horretan hartuko dau indarra arlo errebindikatibuak eta Gasteizen egindako bigarrenian STV izena hartuko dau eta Sindikatu Kristauen Naziñoarteko Konfederaziñuan sartuko da. Sasoi horretan, eta behin Errepublikan sartuta, "gero eta aliantza gehixago izango dittu sozialista eta anarkistekin".

Behin 50.000 afiliatu izatera heldu zanian eta Iruñean 3. Kongresua egitteko prestaketak hasitta, Gerra Zibillak bertan behera laga eban kongresu hori eta, ondoren, klandestinadarian eta exilioan mugidu zan ELA. "Eusko Gudarostearen barruan, San Andres batalloia osatu eben gurera afiliatuak", kontatzen deskue Amagoia Lasagabaster eskualdeko arduradunak eta Ulaziak. Ha-

men euren biharra egitteko kondiziñorik ez ba eguan be, naziñoartian gogor saiatu ziran orduko arduradunak eta Munduko Sindikatuen Federaziñuan eta Sindikatu Libreñen Naziñoarteko Konfederaziñuan integratu ziran: "ELAren nortasuna naziñoartian izan da beti eta harrotasunez esan geinke mundu guztiko erakundietan izan garala. Poloniako Solidarnosc-ekin gu izango gara bakarrak hainbeste esparruetan egoten", diñoskue harrotasun puntu batekin.

Hirugarren Kongresua be Eibarren


Francoren erregimena amaieran, "belauñaldi baxirik hartzen dau indarra sindikatuaren: refundaziñua edo birsorkundia gertatzen da". 1976ko Kongresua zati bittan egingo da, lehelengua Euban eta bigarrenia Eibarren: "Hamen presentaziño publikua egin zan eta sindikatuak sozialista defintidu eban bere burua, munduko naziñuen askatasunaren aldekoa". Horrekin batera, "erabagi potoluenak hartu ziran, euren artian, independentzia politikuaren aldekoa eta baita autonomia finantziarixuaren aldekoa, horrek gure kuotak jasotzia ekarri arren". Alkartasun erresistentzia kutxarena be sasoi hartakua da.

1977ko maiatzaren 2xan legalizauko dabe sindikatuak, "beste 180 organizaziño eta asoziaziño profesionalekin batera". Horrekin batera, Moncloako paktuen aurka egin-

go dau ELAK eta bere politika sindikala "halako paktuen kontrakua izango da". Bihargiñen Estatutuaren kontra be egingo dau eta euskal esparruaren aldeko posturia hartuko. Autonomia Estatutuari babesa eskinduta be, "handik aurrera ikusitta zelan gauzatu zan, 1997xan Gernikako ekimenian Estatutua hilda zeguala" aldarrikau eban eta soberanismoari heldu zetsan. Bittartian, Lasagabasterrek gogoratzen deskunez, "90. hamarkadarekin batera, generuarena eta generazionala izango dan aldaketia gertauko da sindikatuan. 8. Kongresuko fotografixa 'zatarrak' (35 gizonetzko eta emakume bakarra) emakumiari eta gaztieri bidia egin bihar jakuela emon eban aditzera eta horri heldu gentsan". Horrekin batera juan zan "erabagi potoluak adostuta hartuko zirala" esaten eban asmua be, ordutik bete dana.

Lau egoitza Eibarren

Gure herrixan, Kongresuetatik aparte, "ELAn izen propixua" euki daben jendia egon da: "Jose Gorroñogoitia I. Zuzendari-tza Konfederaleko buruarekin batera, Andoni Zendoia eta Luis Mari Arana ejekutibako kidiak dagoz, eta baita Naziño batzordeko Juan Cruz López eta Alfonso Moya". Eibarren Polikarpo Larrañaga apaizaren lana be aitzindarixetakua izan zan: "Sasoi hartan bihargiñak ez ziran plaza-gizonak eta apaizak ahalmen gehixago ekelako propagandista izateko".



Jose Angel Ulazia eta Amagoia Lasagabaster Eibarko ELAko egoitzaren aurrian. / SILBIA HERNANDEZ

(1994ra arte) eta Arraguetakuarekin amaitzeko, bertan bost urte inguru egitteko".

Erakusketa apala

Ehun urteko bide horretan sakontzeko aprobetxau dabe aukera hau eta, beste hainbat ekitaldixekin batera, erakusketa ibiltarixa dihardue eskintzen herririk herri. Gurian astelehenian eta martitzenian izango da ikusgai Bidebarrieta lokalian. "Panoramikia antxiñako dokumentuen kopixak eta originalak, arlo desbardiñen inguruko posterrak (Kongresuak, Maiatzaren 1ak, emakumia, ekologixia...), pegatinak, exiliatuen fitxak, argazkixak, karnetak, periodikuetako mantxetak, iikurrak... Betidaniko militantiak, gaiñera, gonbidautu dagoz martitzenian, 19.00etan, egingo dan harrerara", diñoskue ELAko ordezkari bixak. Sindikatua gaur egun? "Inoiz baiño indartsuago".



Jose Elorrieta ELAko sekretarixoa nagusixa izandakoa Eibarren sindikatuko kidiakin.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

MUGICIA FUNERARIA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laboa
Egoibonari (Signo poligonoan)
- Parafinok, metua eta aseguru etxei zerbitzuak
- Korokak - Eskelak - Urtsutanako eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan bartzera zerbitzuak
- Nazio eta Nazioarteko irratidokak

Mugicia Errozketa
Errozketa laboa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Paletilla iberikoa
Etxeko foie-a
Piña eta Burgosko gaztai entsalada*

*Legatza laban edo
Bakailaoa pikillo saltsarekin*

*Solomilloa plantxan edo
Karrillera ondo-saltsarekin*


*Degustazio postrea edo
Gaztai moussea edo
Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

TEEN-
AJEA



Lau akordeoik eta beste lau soinu-trikirik osatutako taldea Salun izan zen asteburuan. Iban Iriondo akordeoilaria eta Irati Goikoetxea trikitilaria dira Marisol Arrilagak zuzentzen duen soinu-joleen artean veteranoenak. Eurekin izan ziren ere Mireia Areitio, Julen Bartolome, Nagore Gisasola, Raizea Hernandez, Cristina Oiarzabal eta Ainhoa Tena.

IBAN ETA IRATI, soinujoleak:

“Saloun oso ondo hartu gintuzten bertakoek”

- Zelan joan da Saloura egin-dako irteera? Oporrak eta lana batu dituzue?

Bidaia kontzertuekin lotu dugu. Horrela, Salouko Musika Eskolan jo genuen eta baita kalean. Hemengo jendea ere bazen bertan eta oso ondo hartu gintuzten: bai hemengoek eta baita bertakoek ere. Dantzan ere egin genuen, katalanez abestu, agurra... Eta Marisol irakasleak ere jo zuen.

- Zenbat urte daramatzazue ikasten? Gogorra da?

Gure kasuan, bederatzi izango dira. Gogorra... batzuetan bai: gure arteko eztabaidak-eta izaten ditugu, batez ere kontzertuak jo aurretiko egunetan, horako prestaketetan barixakuan 22.00etan edo zapatuan goiz saioetan izaten garelako. Bestela, bizpahiru ordu astero.

- Nondik datorkizue zaletasuna? Familiatik, akaso?

Iban: Aititari entzunda: berak piztu zidan soinuarekin jarduteko gogoia.

Irati: Nire kasuan ere, birraitonak tronpeta jotzen zuen eta aititik tronboia. Biek ere Eibarko bandan jardun zuten.

- Noiz arte jarraituko duzuen pasatu zaizue burutik?

Batxilergoa amaitu arte, behintzat, helduko diogu. Gero, batek daki, baina nahiago dugu ia beste edozer lagatzea soinua jotzeari lagatzea baino.

- Non gozatten duzue gehi-ago: kontzertuetan edo kalejiratan?

Kontzertu auditiboetan eta halakoetan urduritasuna nabaritzen da askotan eta arreta gehiago jarri behar duzu. Gozatzeko aproposagoa da kale giroan, trote gehiago eskatzen badi-zu ere.

- Jendeak estimatzen du egiten duzuenaz? Satisfakzio hori ematen dizue?

Adineko jendearen kasuan baietz esango genuke; nabaritzen zaie. Gure adinekoei ez eskatu halakorik egitea...

- Urtero zenbat saio izaten duzue? Askok?

Urte osorako egutegia daukagu: Kaleetan Kantuz-ekoekin txandaka ibiltzen gara, Euskaren Eguna, nagusien egoitzan... Asteburuan ere, Eibar Plazaren barruan, Astelena frontoian eta kalean jardungo dugu.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelara,
gaztelarik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Udan hator hona, Argentinara

GAZTEA BAZARA ETA UDA HONETARAKO PLAN BILA BAZABILTZA, OPOR EGUN BATZUK ARGENTINAN EMATEKO AUKERA ESKAINTZEN DIZUTE Buenos Aires probintzian dagoen Necocheako Euskal Etxekoek. 2004az geroztik martxan dagoen Hator Hona izeneko proiektuari jarraituta, euskera, euskal dantzak, euskal musika, gastronomia edota euskal kirolen gaineko zaletasuna edo

ezagutza duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteak udan, uztailaren 15etik abuztuaren 7ra bitartean Argentinara joatera animatu nahi dituzte Necocheako Euskal Etxekoek, bertan bizi direnei euskal kultura eta ohiturak irakatsi eta, bide batez, Argentinako euskal etxeen inguruko errealitatea bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainita. Proiektua abiarazi zutenetik gaur arte 51 bat gazte euskaldun izan da Argentinan, ekime-



Proiektua martxan jarri zenetik, 51 gazte euskaldun izan da Argentinan.

narekin bat eginda bertan beharrezkoak diren arduradunen berbetan, "oso emaitza onarekin, gainera".

Argentinatik aditzera emon dutenez, "animatzen denak egin beharko duen bakarra, Necochea-ko (Buenos Aires) bidaia ordaintzea da. Hortik aurrerako gastuak, hau da, ostata zein otorduak, geuk hartzen ditugu geure gain, izan ere euskal etxeo familiaren batekin

batera bizitzen egoteko aukera eskainiko zaio parte hartzea erabakitzen duen gazteari".


Interesa duenak maiatzaren 13ra arteko tartea izango du proiektuaren arduradunekin harremanetan ipini eta izena emateko (www.hatorhona.blogspot.com webgunean). Informazio zabalagoa izan nahi duenak ere aipatutako gunean jaso ditzake honen inguruko azalpen zehatzagoak.



Gaztetxe Eguna jai giroan ospatu zen


Aurreko asteburuan, zapatuan Gaztetxe Eguna ospatu zen gurean, Asua Errekako Tallarra desagertuta "gaztetxe berria eta okupazioa" aldarrikatzeko asmoz batutako hainbat gazteren eskutik. Eguerdian Toribio Etxebarria kalean eta inguruan egindako poteoa girotzen jardun zuen Debako Elektro Txarangak oso harrera ona izan zuen; ekimenean parte hartzen ziharduten gazteek ez ezik, ezustean gazteen musika emanaldiarekin bat egi-

ten joan ziren adin guztietako herritarrek ere gustura entzun zituzten musikari gazteen abestiak eta horri esker zegoen giro ona denon ahotan ibili zen. Kalejira amaituta, 40 bat lagun elkartu ziren Txaltxa Zelaiko parkean bazkaltzeko eta eguraldia aldatu eta bapatean euria botatzen hasi zuen arren, antolatutako programari jarraitu zioten gazteek eta ederto amaitu zuten eguna Lokura Prematura eta Klavo Oxidado taldeen emanaldiarekin.



LUCIA AÑIBARRO ISASTI
(2010eko maiatzaren 5ean hil zen)
I. URTEURRENA

"Ez zaitugu sekula inoiz ahaztuko"
ZURE FAMILIA



Euskeraren transmisioa aztertzeko mintegia

Maiatzaren 25erako euskeraren transmisioaren inguruko mintegia antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkartek, Udalaren laguntzarekin. Goizetik (08.45etatik 13.30etara) eta arratsaldetik (15.00etatik 17.30etara) emanango den mintegia Portalea kultur etxean izango da eta bereziki Udaletako euskera teknikariari, euskera elkarteetako kideei, irakasleei eta aisialdi taldeetako ordezkariari begira prestatu dute egunerako egitaraua, transmisioaren arlo ezberdinak lantzeko horretan adituak diren profesionalak gonbidatuta. Besteak beste, arratsaldeko saioan Paula Kasares hizkuntzalari, irakasle eta euskaltzain

urgazleak parte hartuko duela aurreratu dute antolatzaileek. Ainaro Lavado ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizazio arloko arduradunak azaldu digunez, "asko gara transmisioaren gainean beharrez jarduten dugun euskara elkarte, instituzio, aisialdi talde, irakasle edota guraso elkarteak eta, beste



Besteak beste, Paula Kasares hizkuntzalari eta irakaslea izango da hizlarietako bat.

alorretan pasatzen den moduan, erakunde bakoitzak bere kabuz somatzen joan den pre-

miak asetu nahian hasi ginen mintegia antolatzen".

Mintegian, orohar, euskaren transmisioak duen garrantzia azalduko dute eta, horretarako, EAEko hainbat erakundetako ordezkariak zein esparru horretan beharrez jarduten aditu eta teknikariak gonbidatu dituzte, bakoitzak bere esparruko inguruko azalpenak eman ditzan. Besteak beste, euren ponentzietan Nafarroako ekimenak, Ikastolen Federazioaren esperientzia, transmisioa aisialditik lantzeko Getxon eta Arrasaten izandako esperientziak, Udaletako ekimenak eta soziolinguistikako ikuskera moduko kontuak landuko dituzte eta, berbaldiekin batera, mahaingurua ere preparatu dute.

Izen ematea astelehenean zabalduko du ...eta kitto!-k hilaren 20ra arte

EGITARAUA

08.45-09.00.- Akreditazioa eta dokumentazioa jasotzea.

09.00-09.35.- Ongietorria.

09.40-10.10.- Hasierako hitzaldia: "EAEko eukararen belaunez belauneko transmisioa".

10.20-10.50.- Transmisioa Nafarroan (Bortzirietako esperientzia).

10.55-11.25.- Ikastolen Federazioaren esperientzia.

11.25-11.45.- Atsedendaldia.

11.50-12.45.- Transmisioa aisialdian (Getxo eta Arrasateko esperientziak).

12.50-13.20.- Udaletako ekimenak (Lasarte).

13.30-15.00.- Bazkaria.

15.05-16.00.- Paula Kasares-en saioa.

16.05-17.15.- Mahaingurua: transmisioa bermatzeko urratsak. Moderatzailea: Pablo Suberbiola.

17.20-17.30.- Agurra.

Noiz: Maiatzak 25, eguaztena. **Non:** Portalea.

Izen-ematea: Maiatzaren 9tik 20ra, ...eta kitto! Euskara

Elkartean: 943200918 / normalizazioa@etakitto.com

Prezioa: 20 euro (bazkaria barne). Bestela, 10 euro.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 ☎ FAX: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Analisi Klinikoak	12 Koloproktologia
6 Ortodontzia	13 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	14 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

IGELTSERITZA

CAMILO ALVAREZ

OROKORREAN

– **Barne erreformak**
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– **Gremioen koordinaketa**

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 ☎ FAX: 943 202564

**Udaberrirako
BEHAR DUZUN GUZTIA:**

ospakizunetarako jantziak,
egunero erabiltzeko erropa,
moda gaztea eta dibertigarria,
arropa erosoak eta informalak,
oinetakoak,
konplementoak...



Udaberriko

GEHIGARRI berezia

m o d a

gazteendako
erropa eroso
eta dotoreak

BETI EHUN
NATURALAK

Irutza

Arragueta, 9



YBOGG

NEKAK

J. Etxeberria, 2

GOIEN



GUZTIONDAKO
OINETAKOAK
Bidebarrieta, 26



gratzina

Eskerrik asko
Estitxu, eta
nahi duzun arte

Bidebarrieta, 18
EIBAR




S A C H E R

Urbieta, 22 DONOSTIA
Andra Mari, 24 DURANGO



Egunero
erabiltzeko eta
ospakizunetarako
erropak




Valenciaga



Zuloagatarren, 1



EMAKUME eta
GIZON MODA



Guby
MUTILAK

Birjiñape, 1
Zuloagatarren, 9



Urtebete da pilota munduan Eibarko enbaxadorea izan zenak laga gintuela

Kamiñokua baserrian -gaur egungo Alfa Micro-fusióneko terrenoetan- jaioa, 1931ko otsailaren 20an, **Pedro Azpiri Gallastegi "EIBAR"** gatzizenez ezagutu zuten frontoietan, berak jokatu zuen zesta-punta modalitatean. Lehenengo ikasketak Markina-Xemeingo frontoian, modalitateko "unibertsitatean" egin zituen Pedrok eta 1949an debutatu zuen profesionaletan Palma de Mallorcako "Frontón

Balear"-ean eta han jokatu zuen 1953ra arte. Ondoren Zaragozako Frontón Aragónés-ean jardun zuen, Italiara joan baino lehen; azken herrialde horretan hiru urte eman zituen, Napoliko Pertenopeo frontoian.

1957an itsasoa zeharkatu eta EEBB-ko Tampako Jai Alai frontoira egin zuen jautzia eta han ibili zen sei denboralditan, urte bakoitzeko abenduan haruntza joan eta apirilera arte etorri barik.

Behin Eibarrera bueltatuta, Durango, Markina eta Iparraldeko frontoietan jarduten zuen, berarekin ziharduten pilotarietara. Tarte horretan, 1958-59 denboraldian "doubles"-eko atzelari onena izendatu zuten eta 1960an Madrilgo Recoletos frontoian jokatu zuen.

1963an Mexikora pasatu zen, Tijuana-ko Frontón Palacio-



Pedro Azpirik omenaldia jaso zuen Durangoko Ezkurdi frontoian pilotari jarduna laga zuenean 1981eko uztailaren 1ean.

ra. Urte horretan ezkondu zen Mertxe Zuluagarekin -hau ere eibarra- ahalordez edo *por poderes*, irailera arte elkar ikusteko aukerarik ez bazuten izan ere. Tampan jarraitu zuen, baina sasoi hartan pilotarietara egindako greba baten ondoren etxera bueltatzea beste erremediorik ez zuen izan.

1968tik aurrera, batez ere Durango, Markina eta Iparraldeko frontoietan jarraitu zuen jokatzeko, Ezkurdi bere bidetara amaiera eman arte; hori bai, 50 urteak eginda laga zion jokatzeari. Behin erretiratua, beste urtebete egin zuen Iparraldean

pilota irakasten; gero Eibarrera etorri zen eta Renault markako auto-saltzaile jardun zuen jubilaziora iritsi arte.

Dotoretasuna izan zen bere ezaugarri nagusia ("kantxa barruan zein kanpoan", ezagutzen zutenek diotenez) eta "Litri" ere deitzen zioten. Atzelaria izanda, "revés-a" zuen arma nagusia eta oso ondo irekitzen zuen pelota, bikain jotzeaz aparte. Iazko maiatzaren 8an laga gintuen Pedro Azpiri "Eibar"-ek, ezagutu zutenen artean dotoretasuna, solasaldietarako dohaiak eta jatortasuna erakutsi ondoren.



George Hamilton aktore ospetsuak zesta-puntistei egindako bisita. Bere atzean, ezkerrean, Pedro Azpiri "Eibar".

Udaberri torneoko pilota partiduak Ipurua kiroldegiko frontoian

ZAPATU ARRATSALDEAN UDABERRI PILOTA TORNEOKO PARTIDU BI JOKATUKO DIRA Ipuruan. Infantil mailako binakakoan, Narbaiza eta Zorion irabazteko faborito dira Aretxabaletako bikotearen aurrean; eta, jarraian jokatuko den lau eta erdiaren barruko buruz-burukoan, Egañak nor baino nor jardungo du Legazpiko ordezkariaren aurka. Badute aukera, beraz, Klub Deportibokoek.

Xala eta Retegi Bi nor baino nor Astelenan buruz-buruko txapelketan

JOKALDIAK ONDO AMAITZEN DAKITENEN ARTEKO NOR-GEHIAGOKA IZANGO DA DOMEKAN Astelenan partidu nagusia. Aurretik, baina, binakako partiduarekin hasiko da jaialdia: hor Apezetxea-Beroiz eta Aritz Lasa-Zabaleta bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Eta, partidu nagusiaren ostean, beste buruz-burukoia izango da: Argote eta Merinoren artekoa, bigarren mailan.

PEDRO AZPIRI GALLASTEGI

"EIBAR" pelotari-ohia-ren I. urteurrena (2010-V-8)



SENAR ETA AITA ONENA IZAN ZARA: HORREGATIK EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.



Mari Merche zure emaztea eta Georgina, Laura, Jose eta Felix zure seme-alabak (ASKO MAITE ZAITUGU)



Eibarko duatloiairen 20. edizioa jokatu da domekan

EIBAR TRIATLOI TALDEAK ANTOLATUKO DU, GIPUZKOAKO TRIATLOI FEDERAZIOAREKIN ETA EFT-REKIN BATERA, Gipuzkoako duatloi sprint txapelketarako baliagarria den edizio berri hau. Duatloi zirkuitoko azken-aurreko proba puntuagarria izango da domeka goizekoa, oraingoan sprint distantzian jokatu dena: 5 kilometro antxixiketan, 25 bizikleta gainean eta beste bi eta erdi antxixiketan berriro.

Proba goizeko 11.00etan hasiko da eta irteera, helmuga eta boxeak El Corte Inglés-aren aurreko parkean kokatu dira. Oinezko probak herri barruan jokatu badira ere, bizikleta saioak honako ibilbidea izango du: bariantetik Soroluzeraino, Osintxun buelta eman eta Eibarrera itzultzeko. Aurreko astean Zornotzan jokatu duen duatloian, Ane Ziaran eibartarra onena izan zen beste behin bere mailan, maila absolutoko 4. postua eskuratu.



Arratzuko lasterketan parte hartu zuen Eibarko hamarkotea.

Hamar eibartar Arratzuko mendi lasterketan

ZAPATUAN ARRATZUN JOKATUTAKO EUSKADIKO MENDI LASTERKETA KOPAKO LEHENENGO PROBAN, gure herriko hamar atleta izan ziren parte hartzen: guztiek ere hiru orduko gorako lana egin behar izan zuten, azkenaren kasuan bost ordura arte luzatu zena. Jose Mari Bernedok 56. postuan amaitu

zuen proba (3h16'34"), Ibon Vegak 102.ean eta Raul Fernándezek 195.ean. Atzetik sailkatu ziren Iñaki López de Gereño (203), Igor Fernández (216), Eduardo Uribe (225), Igor Azurmendi (231), Juanjo Larramendi (253), Ignacio Garai (268) eta Oskar Gisasola (308). Euretatik zazpi Klub Deportiboa ordezkatu zuten.

Arratek puntu bakarra behar du Asobalen jarraitzeko

JULIAN RUIZEN MUTILEK ESKURATUTAKO AZKEN BI GARAI-PENEK NAHIKO ARGITU DUTE ARRATEREN ETORKIZUN HURBILA eta, geratzen diren azken hiru jardunaldietan puntu bakarra lortuta, taldeak hurrengo denboraldirako tokia ziurtatu du Asobal ligan; ez hori bakarrik, punturik eskuratu barik ere nahikoa du Toledok plenoa ez egitearekin, hau da, azken honek geratzen

zaizkion hiru partiduak ez irabaztearekin. Guadalajaran garaipen garrantzitsua lortu zuen Arratek, gol baten aldearekin (26-27), nahiz eta neurketa guztian nagusitu; bestalde, Ipuruan Amaya San Antonio-aren aurka jokatu duen azken norgehiagokan bikain jardun zuten eibartarrek, batez ere lehen zatian, eta 28-25 nagusitu ziren. Bihar Cuencan jokatu du Arratek, El Sargal pabilioian, 19.00etatik aurrera.



LOGROÑO ASTEBURUAN JOKATUTAKO ESPAINIAKO TXAPELKETAREN C SEKTOREAREN FASEAN, jubenil mailako Arrate eskubaloitza taldeak azken urteotan emandako irudirik onena eskaini zuen. Fernando Fernándezek prestatzen duen taldeak 33-26 irabazi zion Anaitasunari eta 37-17 egurtu Naturhouse La Rioja; dena dela, Bartzelona ahalguztiduna izango da azken fasean jarduneko duena, eibartarrei 28-26 irabazi eta gero.



Urki nesken taldeko ordezkari bi Gasteiz Cup-en

INFANTIL MAILAKO 2. URTEKO JOKALARIEKIN (TARTAN 1. URTEKO BESTE HIRU) GERATU ZEN AZPITXAPELDUN Hodei Lamarianoren Urki-ko nesken taldea San Prudentzio Torneoaren -GasteizCup deitutakoa- X. edizioaren maila horretako Kopa torneoan. Hiru partidu irabazi zituzten eibartarrek, beste bi berdindu eta, finalen, penaltietan galdu zuten 200 minutuetan dena eman eta

gero. Laura izan zen goleatzaile nagusia, bost golekin.

Alberto Lamarianok zuzentzen duen 1. urteko infantil mailako taldeak ere (Eibar FT-ren eskolako bost promesekin) txapeladun azken fasea jokatu zuen aurretik jokatu duen partidu biak irabazi eta gero; hor esperientzia gehiagoko taldeei egin behar izan zioten aurre, baina hala ere oso zapo ona laga zuen talde gazteak.



Fortuna-Tximistarrakoak Urbati partidua irabazi eta gero, Orbea kiroldegiko kanpo aldean.

Waterpoloaz maitemintzeko moduko Urbat-Tximistarra Orbean


JARRERA EZINHOBEA URETAN ETA URETATIK KANPO, LEHIA EZIN PARE-KATUAGOA... azkenean emaitza kontra izan arren: hori bizi izan zuten asteburuan Orbea kiroldegian jokatuako waterpolo partidua ikustera joan zirenek. Urbat-Urkotronik-ekoek eskura izan zuten garaipena, birritan gainera: partidua amaitzeko 47 segundoren faltan berdindu zuten Donostiako Fortuna-Tximistarrakoei eta luzapenean, minutu baten faltan

emaitza (9-8) eibartarren aldekoa zenean, tarte horretan kanpotarren bi golekin partidua irauli zuten. Hala ere, Davide Cerchik zuzentzen dituen mutilek denboraldi bikaina egin dute: 3.ak izan dira Openean eta bigarrenak play-offean; horrez gain, beteranoei erakutsitako mailtasunarekin batera, Mikel Basterrikak, Jurgi Sologaituak eta Txomin Leturiagak jauzia eman dute lehenengo taldera eta horrek etorkizuna ziurtatzen du.

Julen Garro xakelariak bere maila eman du berriro ere

BATEZ ERE, EUSKADIKO SELEKZIOAREKIN ESPAINIAKO AUTONOMIEN ARTEAN XIXONEN JOKATUTAKO TXAPELKETAN.

Hor sei xakelarik osatzen dute talde bakoitza eta tartean emakume eta jubenil mailako jokalarik bana sartu behar dituzte (Julenen azken postu hori bete du taldean). Sei partidetan lau puntu eta erdi bereganatu zituen, Euskadi bosgarrena izatera eramanez zutena. Bestalde, Unibertsitatea Laboralean jokatuako jubenil mailako Euskadiko txapelketan, 3. postuan sailkatu zen eibartarra, bigarrenekin berdinduta.



Asola-Berrikoak goi postuetan

IRAULKETA IZAN DA GIPUZKOAKO HIRU-TXIRLO TXAPELKETAREN XLII. EDIZIOAREN SAILKAPENEAN eta gure herriko ordezkariak goiko postuetara egin dute jauzia. Elgoibarko San Rokeko bolatokian jokatuako azken jardunaldian, lau bolarik berdindu zuten lau txirlo botata eta euretako batek, Arkaitz Rodríguezek, lidergoa eskuratu du: eibartarrak txirlo biko aldea ateratzen dio San Migueleko Imanol Osoro 2. sailkatuari eta laukoa Asola-Berriko Gaizka Unamunzaga hirugarrenari. Hurrengo jardunaldia bihar jokatu da Soraluzeko Ezozian, 17.00etan hasita.

JoserAuto liga irabazteko prest berriro

ORAIN DELA ASTE BATZUK IA EZINEZKOA ZIRUDIENA GERTATU DA eta JoserAutok foball-zaletuen ligako lidergoa eskuratu du asteburuan jokatuako den jardunaldi bakarraren faltan. Asteburuko jardunaldia erabakigarria zen oso eta hor JoserAutok, Durangori 2-1 irabaziz, hau aurreratzea lortu zuten; baina, horrez gain, beste emaitza bat ere izan zen, hau da, Teknografikek galtzea (2-1 Azkena Calton-ekin) eta orain bai hauek eta bai Durango puntu batera ditu JoserAutok. Berak bihar Somos Sporting-eri irabazita nahikoa du.

ELA 100 URTEZ

euskal sindikatua

100 arrazoi baino gehiago ditugu urteurrena ospatzeko

Maiatzaren 9 eta 10, astelehena eta martitzena, goiz eta arratsaldez.

ERAKUSKETA (argazki, domina, dokumentu, txosten, kartel, pegatina...)

ELAren Bidebarrietako egoitzan

Garai bateko ELA-ideak elkartuko gara gaurko ordezkari eta lagunekin. Gonbidatuta zaudete !

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional talata
zure zerbitzura



Hortz, konplexioa eta
konkilio harratekin
Hundelako kontrol...

PREBENTIBOAK - Tel. 943 20 18 51

m bista eder



Inbarrak
gazte egiten garu

implante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

OSASUN



GASTESI

Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



RPS 04/02
IRAZABAL
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinenzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta Fisioterapia

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behean - Tel.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Hemen zure tokia
izan nahi baduzu
deitu 943-206776
telefono zenbakira



GGDA

Fisioterapia




ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
T.F.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENENKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia. OSTEOPATIA NEUROLOGIA NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA
Juan Gisasola, 14
Telefona: 943 12 70 78

Okulistak



JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solainurtea
943 20 19 82



Clínica Oftalmológica RECALDE
Oftalmología Clínica
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

HELBIDE BERRIA
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Ereiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@terra.es

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Ainhoa Garairekin batera Eibarren izango da Aitziber Garmendia datorren maiatzaren 13an, barixakua, "Baginaren bakarrizketak" antzezlana eskaintzen. Urtarrilean Tolosan estreinatu zutenetik arrakasta handia izaten dihardu, taburik gabe, sexualitatearen inguruko hainbat bakarrizketa biltzen dituen antzezlana. Arratsaldeko 20.30etan izango da bikotea ikusteko aukera Coliseo antzokian.

AITZIBER GARMENDIA, aktorea:

"Emakume errealen benetako istorioak kontatuko ditugu"



- Zein eratako ikuskizuna eskainiko duzue?

Denetarik ikusteko aukera izango da. Jendeak pentsatu dezake bakarrik emakumeentzat dela eta umorezkoa soilik, baina ez da horrela. Emakumeentzat bezalaxe gizonentzat ere bada, eta umorearekin batera dramak ere izango du tartea. Sexualitatearen aurpegi gogorrena ere erakutsiko dugu: ablazioa, bortxaketak... Antzezlana arraza, adin, maila kultural eta sozial ezberdinetako 200dik goa emakumeri egindako elkarriketen fruitua da. 12-13 bat bakarrizketa dira eta horietan benetako istorioak kontatzen dira, emakume errealei gertatutakoak.

- Non dago antzezlanaren arrakastaren gakoa?

Jendea kontziente da sexualitatea asko hitz egiten ez den gaia dela. Antzokiko babesean, butakan eserita, sexualitateari buruz besteek nola hitz egiten duten ikustea gustatzen zaio jendeari. Horrez gain, benetako istorioak direla jakiteak pisua ematen dio antzezlanari, baina baita morboa ere.

- Taburik gabe diharduzue sexualitateari buruz, baina gizartea maila horretan dago?


Denerarik egongo da baina oraindik ere tabu pila bat daude gizartean gai horri buruz berba egiterako orduan, eta batez ere emakumeen artean. Gizonak, aldiz, harro sentitzeko bada ere, gehiago hitz egiten dute. Emakumeak lotsatu egiten gara eta hori da hautsi nahi duguna.

- Zein erreakzio izaten dute emakumeek? Eta gizonek?

Hasteko esan behar dut emakume gehiago etortzen dela antzezlana ikustera. Hasieratik hasten dira barre urduriarekin. Baginari buruz berba egiten entzutea batzuei gogorra egiten zaie eta urduritasuna somatzen da. Gizonak, berriz, emakumeek barre egiten ez duten momentuetan egiten dute barre. Horretan ere alde dago.

- Zergatik dute horren arrakasta bakarrizketek?

Publikoarengana zuzenean jotzen dugu, eurekin hartu-emanen dihardugu, eta horren parte izatea, konplizitate sentitzea gustatu egiten zaie ikusleei.



"Papiro...flexia", gaur Coliseoan

DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO XXVII. ANTZERKI ERAKUSKETAREN EGITARAUAREN BARRUAN, gaur 20.30etan "Papiro...flexia," izenburuko ikuskizuna eskainiki dute Coliseo antzokian Logela & Circle Of Trust taldeek (sarrerak 7 eurotan salgai). Hip-hop dantza multimediako lan berria bereziki gazteentzat pentsatuta sortu duten arren, adin guztietako publikoarentzat egokia dela diote egileek.

Eibar eta Lasarte aurrez aurre Bide Aldeko bertso-afarian

GAUR GAUERAKO BERTSO AFARIA ANTOLATU DUTE ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEKOEK, Bide Alde elkarte gastronomikoarekin elkarlanean eta Illunabarrian programari jarraituta (21.30etan, Txaltxa Zelai kaleko 8-10 behean). Aurtengo saioan Eibar eta Lasarteko taldeek jardungo dute lehian. Eibarko ordezkariek Xabi Astigarraga eta Mikel Arrillaga izango dira eta Lasartekoak Zigor Iriondo eta Unai Muñoa.



Eibar-Ermua "desapiyua" zapatuan

FINLANDIA UMORE SAIORAKO ORAIN ASTE BATZUK GURE HERRIKO ZEZEN PLAZAN GRABATUTAKO Eibar-Ermua "Desapiyua" asteburu honetako programan ikusteko aukera izango da (zapatuan, 21.45etan ETB1ean). Anjel Alkain aktoreak gidatutako talde bien arteko norgehiagokan aintzinako Erromako gladiadorek egin ohi zituzten borrokak gogora ekarri nahi izan zituzten eta, horri jarraituta, saritzat ematen dituzten 500 euroak eskuratzeko gogor jardun zuten talde bietako gazteek. Proba nola joan zen eta azkenean zein taldek irabazi zuen jakin nahi duenak, aipatutako orduan telebista piztu eta horretarako aukera izango du.

Eibar Plazara Arraterekin

GAUR ETA BIHAR JAI GIROA NAGUSITUKO DA GUREAN, ARRATE ESKUBALOI TALDEAREN LAGUNARTEAK ANTOLATUTAKO Eibar Plazara izeneko programa bereziari esker. Gaur arratsaldean bertan hasiko dira jarduerak, 19.00etan, Urkizutik abiatuta Untzagaraino joango den kalejirarekin. Besteak beste, erraldoiak, hankapaloak, Arrate Eskubaloi Taldeko harrobiko banderadunak, Eibarko Dantza Taldekide taldekoak, trikitalariak, Ustekabe fanfarrekoak, dultzaineroak, Kezka dantza taldekoak, Kaleetan Kantuzekoak eta gaiteroak parte hartzea aurreikusita dago. Untzagan, berriz, bertako jubilatuen abesbatzak emanaldia eskainiko du 19.00etatik aurrera eta ordu erdi geroago Ertizka otxotekoak erdialdeko kaleetan abesten ibiliko dira. Eta kaleko emanaldiak amaituta, gauean 22.30etan Astelena frontoian jarraituko du jaiak, Sostoa Abesbatza, Los Camperos, Musika Eskolako mariatxia, Eibarko Koro Gaztea, Dos Veracruz, Goruntz abesbatza eta



Belzeblues taldeak bihar gauean joko du Untzagan, C.V. eta Garrapatarekin.

Voces y Cuerdas taldeen eskutik (sarrera 12 euro).

Biharkoak, berriz, Usartza



txistulari taldearen alardearekin hasiko dira, 13.30etan. 15.00ak aldera Zero Siette eta Mp5 taldeek girotutako bazkaria hasiko da eta arratsaldean, 17.30etatik aurrera, umeendako jaialdia, Cielito Musika Bandaren kalejira eta saltsa taldearen emanaldia batu dituzte. Gauerako rock kontzertua antolatu dute: 23.00etatik aurrera Belzeblues, C.V. eta Garrapata taldeek jardungo dute Untzagan eta Astelena frontoia, berriz, "Bolera gogoratuz" Dj eta karaoke saioa hartuko du (sarrerak 5 eurotan salduko dira, bakarrik lehiatilan).

Asteburuan ospatuko dituzte Santa Kurutz jaiak

MARTITZENEAN SANTA KURUTZ EGUNA IZAN ZEN ETA, OHITURARI JARRAITUZ, Udalak eta Santa Kurutzeko jai batzordeak egitarau zabala prestatu dute astebururako, zapatu eta domekarako. Bihar 10.30-etan hasiko dira egita-

rauko jarduerak, kanpai-errepikarekin. Ondoren meza eta hamaiketako etorriko dira, eguerdian Juan Mari Narbaiza eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolarien eta Ander Agirrebeña eta Unai Andonegi trikitalarien txanda ailegatu bitarte-

an. Ixua jatetxean egingo den bazkariaren aurretik, oraindik ere haurrentzako jolasentzat zein auzoko gazteen eskutik garatuko diren herri jolasentzat tarte izango da. Eta, bazkalostean, erromeria ospatuko da Ander Agirrebeña eta Unai Andonegirekin.

Jaiak domekan jarraituko du, berriz ere meza ospatuta. Eguerdian soka-dantza, egingo da Usartza txistulari banda eta Kezka dantza taldearekin eta segidan Jone Uria eta Miren Gisasola trikitalarien emanaldia hasiko da. 13.00etan ailegatu da Fredi magoa, auzoa eta auzokoak nahasteko asmoarekin. Eta kanpai-hotsekin jaiak hurrengo urterarte agurtu aurretik, haurrentzako jolasak egingo dira.



Auzoko jaiak asteburu osoa hartuko dute.. / LEIRE ITURBE

laburrak

NAPOKA IRIAREN KONZERTUA

Ander Mujikak eta Miren Narbaizak osatutako Napoka Iria taldeak kontzertua emango du gaur Donostian, Kontadores aretoan (Pasai San Pedro etorbidea, 13 behea). Gaurko emanaldian, gainera, ez dira bakarrik egongo, Bart Davenport musikariak ere kontzertuan parte hartzen jardungo du eta. Emanaldirako sarrerak 9 eurotan egongo dira salgai.

1948-AN JAIOTAKOAK

Maiatzaren 21ean (zapatua) elkartuko dira urte horretan jaiotakoak, 21.00etan Arrate hotelean hasiko den afarian. Joan nahi dutenek aurretik izena eman beharko dute eta Euskadiko Kutzako 078.1.03181.1 kontu korrontean 60 euro sartu beharko dituzte, seinale modura.

EGO IBAR ZINE KLUBA

Etenaldi baten ondoren, datorren astetik aurrera Ego Ibar zine klubak betiko martxari helduko dio berriz ere, astean behin (eguetan) pelikula bat emanaz. Hilaren 12rako aukeratu duten filma "Women without men" (Shirin Neshat, Shoja Azari) da etahilaren 19an, berriz, "De dioses y hombres" (Xavier Beauvois) ikusteko aukera izango da. Proiekzioak Hezkuntza Esparruan izaten dira, 17.30etan eta 21.00etan eta sarrerak euro bi balio du.

AMANDRIAKO TAILERRAK

Amandria terapia zentruak tailer bi antolatu ditu datozen egunotarako: bihar (zapatua, hilak 7) Reiki tailerra eskainiko dute Bittor Sarasketa kaleko lokalean eta hurrengo asteburuan, maiatzaren 15ean (domeka) Bach loreen inguruko. Interesatuek antolatzaileekin zuzenean harremanetan ipintzeko aukera daukate, 943531517 edo 699322320 telefono zenbakira deituta.

Seafóid taldea nagusi Folk Mendebala lehiaketan

SEAFÓID FOLK ROCK MUSIKA TALDE EIBARTARRAK FOLK MENDEBALA MUSIKA JAIALDIAK ANTOLATUTAKO MAKETA LEHIAKETA IRABAZI DU, zapa-tuan Portugaleten jokatu zen finalean nagusitu ondoren. Lehiaketa irabazteari esker, besteak beste, uztailean 1ean eta 2an ospatuko den Folk Mendebala jaialdi ospetsuan Itziarren Semeak, Mercedes Peon, Skontra, Goulamas-k eta Celtas Cortos taldeekin batera jarduteko aukera izango dute eibartarrek. Horrez gain, Getxo Folk, Folkez Blai eta beste jaialdi batzuetan kontzertuak eskaintzen izango direla aurreratu dute Seafóid taldekoek. Eibarren ere izango dugu taldearen musikarekin gozatzeko aukerarik, irailean Untzagan jotzeko asmoa dute eta. Sariak, gainera, hurrengo Durangoko Azokarako kalean izango den diskoa grabatzeko ateak zabaldu dizkie.



Argazki erakusketek betetako maiatza

EGUAZTEN ARRATSALDEAN BANATU ZITUZTEN ARGAZKILARITZA MAIATZEAN LEHIAKETAKO LEHEN EDIZIOKO SARRIAK El Corte Inglés-eko erakusketa aretoan eta, sariak banatzeko ekitaldia amaitzearekin batera inauguratuztat eman zuten lehiaketako lanekin osatutako erakusketa (maiatzaren 31ra arte ikusgai, astelehenetik zapatara 10.00etatik 22.00etara). Gaurtik aurrera eta hilaren 29ra arte, berriz, Gervasio Sanchez-en "Vidas minadas" izenburuko erakusketa egongo da ikusgai Portalean, M^a Gracia de la



Hoz (Ojanguren 2010 Lehiaketako Ohorezko Saria) eta Joseba Ibarra (CEF 2010 Argazkilaritza Sari Nazionala) argazkilarien lanekin batera. Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek antolatutako erakusketen zerranda osatzen, hilaren 31ra arte Wentong

Wang eta Feng Xiaohui argazkilarien lanak ikusgai izango dira Untzagako jubilatuen etxean, 30 Argizaiola Lehiaketako lanak Klub Deportiboan ikus daitezke eta El Ambigú eta Portalea tabernetan Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen erakusketa kolektiboak daude martxan.

Testu zahar gehiago digitalizatu dituzte

EGO IBARRA BATZORDEAK EIBARTARREK IDATZITAKOAK ZEIN GURE HERRIARI BURUZ DIHARDUTEN artikulu eta bestelako agiriak digitalizatzeko prozesuan dihardu beharrea eta, horren harira, 1882-1914 bitartean Euskal-Erria eta Euskalzalde aldirietan kaleratutako batzuk, tartean Aguirre Guisasolaren "Carta lingüística" eta bere beste artikulu asko, Arrese Beitia-aren "Eibar-ko burdíñ-bidearen estreñako kantua", Capelasteguiaren "San Juan sorbak" eta beste hainbat gehitu dizkie lehenagotik osatua zuen datubaseari.

Idatzietan jasotzen diren gertaerei erreparatuta eta batzuk aipatzearen, Eusebio Zuloagaren heriotzaren berri ematen duena, Orbea jaunak 1899ko maiatzaren 2an "Sociedad Económica Bascongada de Amigos del País"en inaugurazio-ekitaldian eman zuen hitzaldia jasotzen duena, Indalecio Sarrasketa "Eibarko Txikito" pelotariaren bizitzaren hainbat pasarteren berri ematen duena eta interes handiko beste hainbat daude.



Eusebio Zuloaga.

Danborradetarako entseguak hasi dira



EGUAZTENEAN HASI ZIREN SANJUANETARAKO DANBORRADETARAKO ENTSEGUAK. Urteroko martxari jarraituta, entseguak eguaztene egingo dira, 19.00etan umeentzat eta jarraian, 20.00etan heldueentzat.

Bestalde, Amañako danborradetarako entseguak hilaren 12an (eguna) hasiko dira, Amaña herri ikastetxean. Honetan ere umeen entseguak hasiko da lehenengo, 19.00etan, eta jarraian helduen entseguari ekingo diote, 20.00etan. Danborraden arduradunek jendea parte hartzera animatu nahi dute, *"batez ere umeak, aurtengo danborradak 20 urte beteko ditu eta. Horrekin batera, helduen danborradetarako gastadoreak gerturatzea nahiko genuke, azken urteotan ez dugulako lortu gastadore konpainiarik osatzea"*.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunaren bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MAIDER, hillaren 2xan hamabi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MIREN, martitzenian lau urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IRATI Martín González, astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Asko maitte zaittuen aitxitxamamen partez.



Zorionak, MADDALEN Arriola Amesti, hillaren 10ian sei urte beteko dozuzelako. Patxo haundi bat Unai eta etxekuen partez.



MANEX gure mutikuak hiru urte bete zittuan atzo. Zorionak eta muxu asko, etxekuen partez.




Zorionak, NAIA, printzesa, domekan hamar urte beteko dozuz-eta. Oso ondo pasa eguna, famelixakuen partez.

HILDAKOAK

- Inocencio Bernal Corredera. 80 urte. 2011-IV-29.
- Felix Urreta Unamuno. 84 urte. 2011-IV-30.
- Felicísimo Lope Hontoria. 85 urte. 2011-V-1.
- Milagros Etxeberria Baglietto. 90 urte. 2011-V-3.


JAIOTAKOAK

- Luken Medina Izquierdo. 2011-IV-19.
- Adam Yahya. 2011-IV-25.
- Ibai Kerr Elgezua. 2011-IV-26.
- Martín Rascón Valencia. 2011-IV-30.



Zorionak, EMILIO eta M^a PILAR, hillaren 10ian urrezko ezteiak betetzen dozuez-eta. Muxu haundi bat eta ondo pasau, famelixa guztaien partez.

zinea Coliseoan



"La legión del águila"

Zuzendaria: Kevin McDonald
Aktoreak: Channing Tatum, Jamie Bell, Donald Sutherland, Mark Strong


6an: 22.30
7an: 19.45 eta 22.30
8an: 17.00 eta 20.00
9an: 20.30



"Bienvenidos al sur"


Zuzendaria: Luca Minero
Aktoreak: Claudio Bisio, Angela Finocchiaro, Alessandro Siani, Valentina Lodovini

6an: 22.30
7an: 17.00, 19.45 eta 22.30
8an: 20.00
9an: 20.30



"Hop"

7an: 17.00
8an: 17.00



"Agua para elefantes"

Zuzendaria: Francis Lawrence
Aktoreak: Tim Guinee, Robert Pattinson, Reese Witherspoon, Christoph Waltz

6an: 22.30
7an: 17.00, 19.45 eta 22.30
8an: 17.00 eta 20.00
9an: 20.30

DENBORAPASAK

4			2				5
				7			6
	9			4	2		
	6			7	9	3	
7							2
	1	9		2		7	
		3	7			1	
6			4				
5					9		7

AURREKOAREN EMATZA

SUDOKUA

6	4	2	9	7	3	1	5	8
9	5	1	6	4	8	3	7	2
3	7	8	2	5	1	4	6	9
0	1	3	5	2	9	6	4	7
5	9	4	1	6	7	8	2	3
7	2	6	8	3	4	5	9	1
4	3	9	7	8	5	2	1	6
2	8	7	4	1	6	9	3	5
1	6	5	3	9	2	7	0	4

horoskopoa

ARIES

Zuretzat asko esan nahi ez badu ere, berarentzat asko da. Poztu egingo da egin duzuna ikusita eta bihotzez eskertuko dizu.

TAURUS

Hainbat gauza ospatzeko aitzakiak izango dituzu datorren astean. Irten kalera eta ondo pasatu, gozatu! Horrelako aukerak... gutxitan!

GEMINI

Lasaitzeko unea heldu zaizu, azken asteetako stress-a atzean lagatzeko momentua. Zutaz pentsatu eta aurrera begiratu

CANCER

Ez pentsa mundua zuk sortu duzunik. Apalagoa izatea ez litzaizuke txarto etorriko. Gogoan izan aholkua datozen egunotan.

LEO

Ederra sustoa hartu duzuna. Konponduta zegoela pentsatzen zenuen, baina arazoa hasi besterik ez da egin. Hemendik aurrerakoak...

VIRGO

Aspaldiko argazkiak ikusi eta atzean laga duzunaz jabetuko zara. Hala ere, baikorra zara eta aurrera begiratu duzu.

LIBRA

Zertarako animalia bat etxean? Ez duzu nahikoa eskuartean dituzun gauzekin? Txukundu zure bizitza lehenago.

SCORPIUS

Dei garrantzizua jasoko duzu eta astebururako planak erabat aldatu beharko dituzu. Lasai: plan berria hobea izango da.

SAGITTARIUS

Urduritasun unek pasatuko dituzu asteburuan, baina asteleheneetik aurrera dena bere onera itzuliko da. Ordura arte, kirioak dantzan!

CAPRICORNIUS

Etorkizunera begira jarriko zara eta egin nahi duzun guztian pentsatzen. Hala ere, astroak zure alde izango dituzu.

AQUARIUS

Gauzak egun batetik bestera okertu daitezke; beraz, prest egon zaitez. Datorren astea zaila izango da: benetan, eh, oso zaila!

PISCIS

Berri onak, bai ekonomia aldetik eta baita familia arloan ere. Azkenean nahi zenuen hori lortuko duzu. Hori bai ezustea!

Barixakua 6

EIBAR PLAZARA

19.30.- Kalejira musikala, Urkizutik hasita.

22.30.- Jaialdia Sostoa abesbatza, Los Camperos, Musika Eskolako mariatxia, Eibarko Koro Gaztea, Dos Veracruz, Goruntz abesbatza eta Voces y Cuerdas taldeekin. Astelena frontoian.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

19.30.- Jose Luis Irigoienek aurkeztutako argazki erakusketara bisita, Untzagako jubilatuetan.

ANTZERKIA

20.30.- "Papiro...flexia" (Logela & Circle Of Trust). Sarrera: 7 euro. Coliseoan.

BERTSO AFARIA

21.30.- Illunabarrian bertso afaria: Eibar (Xabi Astigarraga, Mikel Arrillaga)-Lasarte (Zigor Iriondo, Unai Muñoa) desafioa. Bide Alde elkarte gastronomikoan.

KONTZERTUA

23.00.- Xuban Laiño, Koldo Lara eta DJ Juanan. Bost tabernan.

Zapatua 7

SANTA KURUTZ

10.30.- Kanpai-errepika.

11.00.- Meza, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Santa Kurutzeko ermitan.

Ondoren, hamaiketakoa. **12.00.-** Bertsolariak: Juan Mari Narbaiza eta Jose Luis Gorrotxategi. Trikitilariak: Ander Agirrebeña eta Unai Andonegi.

12.30.- Haurrentzako jolasak.

13.00.- Herri jolasak, auzoko gazteen eskutik.

14.30.- Bazkaria, Ixua jatetxean. Ondoren, erromeria Ander Agirrebeña eta Unai Andonegiren eskutik.

EIBAR PLAZARA

13.30.- Usartza txistulari taldearen alardea.

14.30.- Herri bazkaria.

EIBAR PLAZARA

18.30.- Haur jaialdia.

19.30.- Cielito Musika Bandaren kalejira.

23.00.- Rock jaialdia, C.V., Belceblues eta Garrapata taldeekin, Untzagan. "Bolera gogoratuz" dantzaldia (DJ-a eta karaokea), Astelena frontoian.

Domeka 8

HERRI URRATS

09.30.- Senperera, Herri Urrats jaira joateko autobusaren irteera, Ego Gainetik (buelta 19.00etan).

DIA DAS LETRAS

10.00.- Foballa: Casa Galicia-Isturburua A.

11.00.- La Salle-Isturburu B. La Salle ikastetxean.

SANTA KURUTZ

10.30.- Kanpaiak.

11.00.- Meza Nagusia Santa Kurutzeko ermitan eta, ondoren, piskolabisa.

12.00.- Soka -dantza, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearen eskutik.

Ondoren Jone Uria eta Miren Gisasola trikitilarien emanaldia.

13.00.- Fredi magoa eta umeentzako jolasak.

14.30.- Kanpai hotsak eta jaien amaiera.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

MUSIKA EMANALDIA

20.00.- "Kantu hori ez da zurea" (Gure bizitzako soinu bandako une batzuk), DJ Okerrekoren eskutik. Karrika tabernan.

Astelehena 9

ATE IREKIAK

11.00/13.00.-

Indianokua gaztelekuko ate irekien jardunaldia (Muzategiko etxe berrietan).

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

18.00.- Zinea Coliseoan. Nagusiek sarrera doan izango dute.

Martitzena 10

IKASTEN

10.00.- "La literatura picaresca del siglo XVI y XVII", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

16.13.- Mendi Ibilaldia Mendarora. Bidaia trenez. Eibatik 16.13etan izango da irteera eta Mendarotik buelta 19.40etan (izen-ematea maiatzaren 9a arte jubilatuetan).

ELA-K 100 URTE

19.00.- ELAko kideak, kide-ohiak eta lagunak elkartzeko dira Eibarko egoitzan.

Eguaztena 11

IKASTEN

09.30.- Esperientzia Eskolakoekin batera, damaskinatua inguruko klasea, Angel Ledoren eskutik. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

17.00.- Zarzuela emanaldia Untzagako jubilatuetan.

ANTZERKIA

20.30.- "Isla (conga, saxo y castañuelas)", Puerto Ricoo Inter-Metro antzerki tailerraren eskutik. Coliseoan.

Eguena 12


IKASTEN

10.00.- "Los puentes y sus elementos constructivos", Josu Garateren eskutik. Armeria Eskolan.

11.30.- Bideokonferentzia: "Los ciudadanos jurados". Hezkuntza Esparruan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

11.00.- Lehiaketa. **14.00.-** Herri bazkaria (paella) eta dantzaldia, Legarreko frontoian. Izen-ematea: Eibarko jubilatuetan, maiatzaren 10a arte. Prezioa 6 euro. Sari banaketa eta dantzaldia.



erakusketak

– Maiatzaren 9an eta 10ean

ELA SINDIKATUAREN 100. URTEURRENAren inguruko erakusketa. ELAren egoitzan (Bidebarrieta).

– Maiatzaren 29ra arte

GERVASIO SANCHEZen “Vidas minadas”, **M^a GRACIA DE LA HOZ** (Ojanguren 2010) Lehiaketako Ohorezko Saria) eta **JOSEBA IBARRA** (CEF 2010 Argazkilaritza Sari Nazionala) argazki erakusketak. *Portalean*.

– Maiatzaren 31ra arte

WENTONG WANG ETA FENG XIAOHUI argazkilarien lanak. *Untzagako jubilatuen etxean*.

30 ARGIZAIOLA LEHIAKETA. *Klub Deportiboan*.

DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAren erakusketa kolektiboa. *El Ambigú eta Portalea tabernetan*.

ARGAZKI LEHIAKETAko lanen erakusketa. *El Corte Inglés-eko erakusketa aretoan*.

mintegiak

– **Euskararen Transmisioari buruzko mintegia**.

Noiz eta non: Maiatzaren 25ean (08.45etatik 13.30etara eta 15.00etatik 17.30etara), *Portalean*. Informazioa eta izen-ematea: ...eta kitto! Euskara Elkartearen (943200918 telefonoan).

ikastaroak

– **Sendiak programa**.

“Curso de introducción a los productos de apoyo a las movilizaciones de personas con discapacidad”
Noiz eta non: Maiatzak 10 eta 12, 15.00etatik 17.00etara *Portalean*. Izen-ematea: Pegoran.

– **“Autocuidado: cuidarse para cuidar”**.

Noiz eta non: Ekainak 6, 7, 8, 9 eta 10, 15.00etatik 17.00etara *Portalean*. Izen-ematea: Pegoran.

– **UEUko udako ikastaroak**.

Noiz eta non: Ekainaren 27tik uztailaren 1era eta uztailaren 11tik 15era (Eibarren), uztailaren 4tik 6ra (Baionan) eta uztailaren 18tik 20ra (Iruñean). Informazioa: www.ueu.org / 943821426.

Eguena 12

ANTZERKIA

15.00.- “Troglostas”, Pontevedrako Tanxarina taldearekin. Hezkuntza Esparruan.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- “Women without men” (Zuz: Shirin Neshat, Shoja Azari). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

ODOL-ATERATZEA

18.30.- Odol-emaitzat odol-ateratzea, Odol Emaitzen Elkartearen egoitzan (Pagaegi, 3).

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua, San Andres elizako kaleetan.

farmaziak

6, barixakua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

7, zapatua

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

8, domeka

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

9, astelehena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

10, martitzena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

11, eguaztena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

12, eguena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

13, barixakua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR**. Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR**. Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR**. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR**. Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR**. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR**. Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR**. Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR**. Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR**. Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. Oso argitsua, berriztua eta bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. Prezio oso interesgarria. Tel. 627-084503 eta 943-127140.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Logela bikoa. 400 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 672-693035 eta 649-313548.

– Gaztea behar da pisua konpartitzeko Eibarren. Tel. 656-734810 (Alazne) eta 650-771995 (Jone).

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Tel. 693-950032.

– Pisua alokagai Torreviejan uda parterako. Hondartza minutu bira. 2 logela, egongela-jangela-sukaldia eta komuna. Tel. 943-201077.

– Pisua alokagai Ermuan. Tel. 658-735514.

– 4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 685-380585.

– 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 943-201106 eta 680-526228. Nuri.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-785393.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajeak salgai Txontan, 6-8 zenbakian Prezio interesgarriak. Deitu arratsaldean. Tel. 696-409217.

– Garajea hartuko nuke alokairuan Ipuruako dorreen inguruan. Tel. 620-917212.

– Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

3.2. Errentan

– Txontan lokala alokagai. 485 m². Behero solairua eta kamioiarentzako sarrera. Prezio onean. Tel. 943-202729 eta 650-022371. Bixente.

– Garaje itxia alokagai Matsarian, Estazio aurrean. 3x5 metrokoa, labareroarekin. Tel. 610-395630.

– Garajea alokagai Asua-erreakan. 22 m²koa eta itxia. Tel. 678-426136.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-445088.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Urte biko esperientzia. Tel. 652-587259.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 605-129530.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxekolanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 943-200994 eta 617-571210.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko (gauz ere bai) eta etxeko garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 653-723095 eta 943-254260.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 655-077394.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 665-301550.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-187901.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 608-474923.

– Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 649-086057.

– Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 696-450343.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Dendan esperientzia. Tel. 943-172816 eta 605-720298. Eva.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da tabernan eta sukaldian lan egiteko. Tel. 605-147304 eta 943-172816. Paola.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 608-376387.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak orduka zaintzeko. Tel. 629-473105.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 646-682575.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-077394.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 617-727744.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 651-836353.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-716699.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 608-820954.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 646-506777.

– Neska eskaintzen da arratsaldeko nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-007271.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanetarako eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 626-068463.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko, nagusiak gauz edo asteburuetan zaintzeko eta sukaldari moduan. Tel. 699-609190.

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 618-734000.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako eta dendan laguntzeko. Tel. 662-267569.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanetarako, dendan laguntzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 649-008036.

– Emakumea eskaintzen da orduka sukaldari moduan lan egiteko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 671-343612 eta 943-531931.

– Gizona eskaintzen da txofer moduan eta lorezain moduan lan egiteko. Tel. 671-343612 edo 943-531931.

4.2. Eskaintzak

– Emakume/gizonezko euskalduna behar da Elgoibarko enpresa batean biltegi lanetarako. Kurrikuluma bidali: kurrikulum@iservicesmail.com

– Kamarera/o behar da erdialdeko taberna baterako. Tel. 615-759399.

– Kamarera/o behar dira asteburuetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

– Kamareroa behar da taberna baterako. Tel. 943-031253.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar dut Batxilergo 2. mailako klaseak jasotzeko. Tel. 697-348080.

5.2. Eskaintzak

– Alemanierazko klaseak ematen ditut haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Somierra eta koltxoi tolesgarriak (0'80koak eta erabili gabeak) eta egurrezko markodun ispilua (1'60x0'50) salgai. Prezio erdian. Tel. 943-120308.

– "Sojabella" esne begetala egiteko makina salgai. Gutxi erabilia. 75 euro. Tel. 630-448560. Aitziber.


– Altzoan umea eramateko "Easy Care" fularra salgai. Erabili gabe. 55 euro. Tel. 630-448560. Aitziber.

– Karateko kimonoa eta Adidas markako eskularruak salgai. Erabili gabe. 50 euro. Tel. 630-448560.


– Motorzalearen ekipamendua salgai. L tamainakoa gutxi gorabehera. Tel. 628-043195.

– Bizikleta estatikoa salgai. Ia berria. 100 euro. Tel. 647-275374.

– Kutxatzar izozkailua salgai. Gram hiru izarrekoa. Tapa transparenteak. 2x0'9 m. Oso egoera onean. Tel. 943-207873.



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**



EIBAR

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Arte Batxilergoa

Elkartrukeak



Zientzien Batxilergoa

Alemania - Ingalaterra



Giza Batxilergoa

Jardifeta 3 Eibar Tel.:943208349 Fax:943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail:012055aa@hezkuntza.net

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2011-2012 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**

La Salle
Eibar



Euskadi
2009

943 121 698

**maiatzaren
2tik 11ra**

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75